



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

531. zkia.

XIII. urtea

2005eko maiatzaren 27a

**Maiatzak 31**

**Kerik Gabeko Mundu Eguna**



Makina  
Erremintaren  
Institutua

Instituto de  
Máquina  
Herramienta

#### INFORMAZIOA:

### Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 82 65 - 74 41 32

Faxa: 943 74 41 53

eposta: amaia@imh.es

www.imh.es



Izena emateko epea:

Ekainaren 1etik 8ra, biak barne

2005-2006 IKASTURTEA

# HEZIKETA ZIKLOAK

#### GOI MAILA (A - D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

#### ERDI MAILA (A - D ereduak)

- Mekanizazioa
- Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazioa eta Mantenimendu Elektro-Mekanikoa

**ATE IREKIAK:**  
ekainaren 2an,  
arratsaldeko 18:00etan



## EIBAR

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Gorpuz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR  
Tel. 943 20 84 44 / Faxa. 943 20 31 96  
E-maila. uni@iesunibhi.com  
www.iesunibhi.com

## ERMUA

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena
- ◆ Informatika Sistemen Administrazioa

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA  
Tel. 943 17 62 57 / Faxa. 943 17 64 50  
E-maila. uni@iesunibhi.com  
www.iesunibhi.com

**Aurrematrikula: ekainaren 1etik 8ra**





MIKEL KORNEJO

Existitzen al dira mamuak, Ibane?

Badago etxe zahar batean bizi den bat. Posta jasotzen hasi zenean, etxearen jabea zen emakumeari zuzendutako posta zela konturatu zen, baina emakumea hilda dago...

Bikotearekin erlazio mingarria bukatu ea maitale ohiaren hitz sutsuak jaso ditu, lau hilabeteko atzerapenarekin posta-zigiluaren arabera...

Beste batek, lagun-mina hil eta, denborara, agur esan ahal izan dio ametsetan... Negar batean esnatu da.

Gizon zahar batek orain dela urte batzuk galdu zuen emaztearekin lo egiten du gauero-gauero, bere ausentziarekin...

Mamuak oso errealak dira gure pentsamenduek iragana bizirik mantentzen dutenean, eta aurrera egin ezinik aurkitzen gara. Begira bestela zer gertatzen den zombien pelikuletan, edo "Cine de Barrio" bera....

Noizean behin espiritismo sesioen bat ez dago gaizki, baina hilda dagoena bakean utzi eta gure energia etorriko denari forma ematen erabili behar dugu, iragana ezin baita aldatu, baina etorkizuna orri zuri bat da. Gustura idatzi zure geroa, Ibane!

P.D. Txarrena orri zuria betetzea derrigorrezkoa dela pentsatzea da. Hau ote da izpirituak inbokatzeke gunea?

## ZOZOAK BELEARI...



IBAN URIZAR

«Mamuak oso errealak dira eta iragana bizirik natentzen dute»

MIKEL

«Zer egingo dugu inork gogoratzen ez gaituenean?»

IBAN

Batak: *aurten hik haina agerpen egin ditut. Besteak: Bai, baina nik beldur gehiago ematen dut. Batak berriz: Erraza da beldurra sartzea beldurtiak direnean. Besteak ordea: Are errazagoa beldurra ezagutzen ez dutenean. Batak bizkarra eman eta bestaldera begira dagoen bitartean, ahopeka: Ez pentsa gogoz beldurtzen dudala, berez, aurten beldurtutako erdiak ez zuen pena merezi eta beste erdiak nekez merezi zuen. Besteak gogotsu: Bai, eta gainera ohe azpian egoteko gero eta leku gutxiago dago ohe japoniar hauekin. Batak zerura begira: Lehen maindire ziztrin batekin moldatzen ginen eta orain 5.1ean oihukatu behar - eta hasperen eginez - aspaldiko mamuak gara, ordea, eta berritu ezinik gabiltzanez gutxi batzuen armairuak eta ohe azpiak okupatu beharko ditugu. Besteak goibel: Eta zer egingo dugu desagertzen garenean? Inork gogoratzen ez gaituenean? Batak eskua bihotzean duela: Lasai Santxo, betirako kondenaturik gaudela, eta errota existitzen diren bitartean... denborarekin hautsa kendu, remasterizatu pixka bat eta jendea beldurtzen jarraituko dugu.*

P.D: Portzieto Mikele, mamuak ez dakit baina plater hegalariren bat ikusi omen zenuen lanean zenbiltzala, eh Mulder?



UTZ IEZAIUZU GIDA ZAITZAN IZAN ZAREN HAURRARI



Jose Saramago

## Urteurrena

Maiatzaren 13an bete zen urtebete, joan zinenetik. Badakizu zer? Askotan oheratu eta begiak itxita, gogor itxita, arren eskatzen dut ez dagidala zure oroitzenen etorri gogora, penak itoko nauen beldur. Eta eztarikiko korapiloa zer zen ez nekien ia lehengo maiatzaren 13ra arte. Zer moduz zaude? Hemen behean ezer gutxi aldatu da. Euskal Herriko eguraldi ospelak eguzkia ekartzen digu tarteka. Berriro ikasten hastekoa nintzen akordatzeko? Bada horretan ari naiz. Bai, gainerakoak ere ondo, eskumuinak denen partetik, eta besarkada estua. Etxea atontzen hastekoak gara laster. Hemen behean ezer gutxi aldatu da. Politikari arreta ematen zenion. Ia denek lehengo lepotik burua. Urtebete igaro da. Nik beti pentsatu izan dut, joandakoen mina gertu-gertukoek baino ez dutela bizi osoan eramaten barnean. Izan ere, egun batean berri dena, hurrengoan "atzoko" baino ez da. Eta beti da horrela. Zure gertukoek ginen ez dakit, baina egunero zutaz oroitzen garela bai. Aitak esaten du sarri ikusten zaituela oraindik lantokiko atean isilik, norbaitek kasu noiz egingo. Nik, beriz, San Lorentzora buelta egiten dudanean,

zure antz handia duen aitona bat ikusten dut beti. Ez dut ezagutzen, benetan, baina pozez agurtzen dut beti, eta bera ere ni ikusita pozten dela dirudi. Nolako hutsunea utziko zenigun ez genuen inoiz pentsatu, eta ez genuen inoiz uste izan hau adinakoa izango zenik. Baina ez zara itzuli eta askoz gaizkiago ez zauden seinale da hori. Beti izango zaitugu gogoan, aitzitza.

AINHOA LENDINEZ

## Eskerrak

Debemen Elkarteak eta Elgoibarko Udalak eskerrak eman nahi dizkie Trinitateko Azoka antolatzen lagundu zutenei eta egunean bertan lanean ibili ziren guztiei. Era berean, larunbat goizerako antolaturik zegoen produktuen dastaketa prestatzen lagundu zutenei ere eman nahi dizkiegu eskerrak.

Azkenik, Goiko Errota elkartearen jarrera txalotu nahi genuke bertan izan genuen arretagatik eta eman ziguten erraztasun guztiarengatik bazkaria antolatu eta zerbitzatzeko orduan.

DEBEMEN

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

**[b]arren**

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
Publizitate: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasoñe Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MARKETZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Garrokategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmukhaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Umuzuno, Unai Villena, Aitaz Vives ESBERA ZAHARRA Gotzon Garateren libururik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





## KEXAK

- Herritar batek esan digunez, **herritar ugari Osasun Zentro aurrean dagoen errotondaren erditik gurutzatzen du bidea:** "Jende askok ez du Osasun Zentro aurrean dagoen errotonda errespetatzen. Oinez gurutzatzeko bideak ondo markatuta dauden arren, Osasun Zentrora joan behar duen jende ugari errotonda erditik gurutzatzen du bidea, eta hori arrisksua da bai oinezkoarentzat eta baita auto gidarientzat ere. Ez gaitzen hain alperrak izan, eta mesedez, errepidea zebra bidea dagoen lekutik gurutzatu dezagun!"



## TXALOK

- Herritar batek **Trinitate jaietako ferian eta artisau azokan parte hartu zuten herritarak txalotu nahi ditu:** "Herriko baserritar eta artisauek txalo bero bat merezi dute, aspaldiko tradizio eta ohitura mantentzeko lan bikaina egiten dutelako. Izugarri gozatu genuen ferian, eta artisau azokan bakoitza bere lanak egiten ikustea oso polita da."



- Herritar batek **F8 Nesken taldea txalotu nahi du finalera iritsi direlako:** "Aupa neskak, ea igandeko finalean zortea daukazuen, eta irabazten duzuen. Zorionak!"

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



**Tel: 943 74 10 11**

- ☎ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ☎ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ☎ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Zatoz informazio eske!*



## URRUZUNOREN Luma

### Indartzen su hori

Telefonoak urrundu gaitin azkenik,  
musu agizko jadanik,  
hitzak.

Zenbaki markatuak gaitun...  
943-z hasitako egunerokotasuna...  
"Zer moduz haurra?"  
kafe hoztuak gure solasak...  
armairuko eztei gaueko izara brodatuak...

Indartzan su hori,  
esan gabeko hitzak, eskutiz sendagarriekin,  
beiretako lurrunaren gainean idatzi  
aurpegi, izen gabeko suizida erotuari.

Iziotu itsan arratseko ilunpean  
ezinezko misterio, ilusio  
amodioak...

*Maite Uriarte*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### ANJEL SANZ

MEKANOSA  
PAPERDENDAKOA

#### • Noiz egin duzu azkene- koz... zorakeria bat?

Sarritan egiten ditut. Adibidez,  
une batetik bestera bidaia bat  
antolatu eta alde egiten dut.

#### • Bidaia?

Joan zen astean Guadalajarara joan nintzen. Ihesladi labu-  
rra izan zen, baina beharrezkoa.

#### • Negar?

Pasa den larunbatean.  
Ez dut negar askorik egiten, baina ametsgaizto batekin  
negarrez esnatu nintzen.

#### • Fotokopia bat?

Duela 10 minutu egin dut azkena.

#### • Etxeko lanak?

Etxean beti laguntzen dut.

#### • Gezur bat esan?

Noizbehinka esaten ditut, azkena beharbada nire seme-  
ari esango nion, batzutan derrigorrez esan behar dira.

#### • Birao bat bota?

Altzari batzuk muntatzen ari nintzela hatzapar bat harrapa-  
tu nuenean. Askotan gertatzen zait.

#### • Zinera joan?

Puff! duela 18 urte gutxienez! "El Lute" pelikula ikusi nuen  
Arrasateko zineman.

## komikia



*Kokoe 019*

## [AKORDATZEN NAIZ]



**JOSE MARI BETELU**

1932an jaioa

### «Gerria»

**N**i oindiokan umia nitzan, baiña gauza batzuekin akordatzen naiz. Gure etxe azpitan zagan lokal baten sartzen giñan sireniak jotzen zabanian; gureztat haura refugixo moduko bat zan, han sartzen giñanian ezer ez jakula pasauko pentsatzen gendun. Abioiak etortzen ziran bonbak botatzera, eta guk uste gendun ikutu ere ez ziguela egingo. Gaur egunian ikusten dogu hori ez zala hola.

Gerra osteko gose denporiakin akordatzen naiz gehixago. Orduan 10-12 urte inguru izango nittuan, gaztia oindiokan, eta gauza askorekin ez nitzan konturatzen. Guk jolastiarekin bakarrik pentsatzen

gendun. Pixkat zaharraguak ziranak bai, harek pasauko zebeñ gaizkixago.

Gose denporia oso gogorra izan zan. Ez zagan jatekorik. Dirua zakanak ere, orduan gosia pasau zaban. Gaur egungo gaztiak pasau biharko leukie gose pixkat, haura zer zan jakiteko. Sei hillabete, gehixago ez, baiña etxera gosez allegau, eta amak jateko ezer ez daguala esaten dabanian zer sentitzen dan ikasteko. Nere seme-alabak jatekuaren gaiñan protestatzen hasten diranian, beti esaten diuet: "amak ipintzen daban dana ona dok". Gaur egun frigorifikua goiitik behera dana beteta egoten da, eta guk hutsik egoten zan denporia ezautu gendun.



## [GURE BERBAK]

### Esamoldien azalpenak (2)

Aurreko bi astietako esamolde batzuen azalpenak daukazuez hemen, baten bati lagungarri gertauko jakozelakuan.

- *Txakurrak hankautsik han ere: Gauza txarrak leku guztixetan gertatzen dira.*
- *Uztarrixan juateko modukuak dituk lagun bixak: antzekuak dituk.*
- *Berua(re)na kendu egixok hire kontakizunari: Ez egik exajeratu.*
- *Kate motzian lotu dau aittak semia: askatasun gutxi ematen dio.*
- *Goixan zerua eta behian lurra dabala geratu da: ezer gabe geratu da.*
- *Ez izan eta bai uste, "mierda pa usté!": Ixurakerixetan dabillenari esaten joko.*
- *Kukuaren markia ondu: Ume bat eduki debeneri esaten jakue, kukuak bakarra edukitzen du eta, aldi bakoitzeko.*
- *Erosittako prezian saldu dixat albistia: Kontau dien bezela kontau dixat nik.*
- *Hamaika holako ikusteko jaixuak gara!: Gauza harigarriren bat gertatzen danian esaten da.*
- *Gu baiño hobeto daguana ez dago gaizki: Oso ondo gaudenian esan leike.*
- *Hasarratzen danak bi lan daukaz: Hasarratzia eta adiskidetzia.*
- *Aldaparik gabeko laurik ez dago: esamolde berdintsu bat: Larrosarik ez dago arantzarik gabe.*

*Jesus Mari Makazaga*

### I. URTEURRENA

2004ko maiatzaren 25ean, 89 urte zituela hil zen *Amalia Amorebieta Barrenetxea*, Iñaki Lasaren alargunaren oroimenez urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzak 29, eguerdiko 12:30ean Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.





# BIZITZA KEAREN GATIBU

*Maiatzaren 31 Kerik Gabeko Mundu Eguna da eta horren inguruan egin nahi izan dugu aste honetako erreportajea. Bi pertsona ekarri ditugu gure artera: Josean Agote, erizaina, eta Todor Calvo, erretzaile ohia. Todorrek hiru hilabete daramatza zigarrorik erre gabe eta harro dagoela aitortu digu. Halere, esan digunez, gehiegizkoa iruditzen zaio gaur egun gizarteak erretzaileekiko duen jarrera, "lehen, zine klasikoan esaterako, erretzaileek glamourra zuten. Gaur egun, delinkuente bihurtu dira". 2006an leku publikoetan erretzea debekatuko omen da, horra hor Todorren hitzen arrazoia. Horiek eta beste asko kontatu dizkigu. Bere esperientzia lagungarri izango da askorentzat. Hona hemen.*

"Martxoaren 2<sup>a</sup> izan zen niretzat zigarrorik gabeko lehenengo eguna, eta gaur arte". Todor Calvoren hitzak dira horiek. 39 urteko elgoibartar hau berandu xamar hasi zen erretzen, 23 urte inguru zituela, eta oso arrazoi bitxiengatik. Berak kontatu digunez, "12 urterekin edo aitari

lapurtutako zigarro bat erre nuen eta botagura eman zidan, nazka hartu nion. Gerora Rosslia erretzen hasi nintzen baina zigarrorik ez nuen probatu 22 urte inguru izan arte. Winston erretzen nuen, kontrabandokoa, eta nolabait Estatu espiniarrari zergak ez nizkiolako ordaintzen harro sentitzen nintzen, kontrabandoko tabakoa erretzeagatik abertzaleago izango banintz bezalagedo". Arrazoiak arrazoi, ez erretzetik bi pakete eta erdi erretzera pasa zen Todor, "ohartu nintzenerako zigarro gehiegi erretzen nuen. Goizean esnatu eta egiten nuen ia estreinako gauza zen, eta oheratu aurretik egiten nuen azken gauza ere bai".


### 365.000 PEZETA URTEAN

Eguna joan, eguna etorri, urteak ere xamur pasatzen dira eta halako batean "arazotxoak" hasi ziren Todorrentzat, "tentsio altua, goizero ez zuten handiak, eskuak hotzak izateaz gain atzamarrak zuri-zuriak izaten nituen... Argi zegoen erretzeak ez zidala batere onik egiten". Eta, berandu baino lehen zerbait egin behar zuela ohartu zen Todor. Bazen, halere,

erretzeari utzi aurretik egin behar zuten beste zerbait. Beste erronka bat zeukan elgoibartarrak, "banekien erretzen uzteaz bat oso posible zela pisua hartzea, hau da, loditzea, eta nik berez gehiegizko pisua neukan. Beraz, erretzen utzi aurretik argaldu egin behar nuela pentsatu nuen". Pentsatu eta egin. Urte eta erdiko tartean 18 kilo galdu zituen Todorrek. Burugogorra dela aitortu digu eta tematzen bada, buruan zerbait sartzen bazaio, bete arte ez duela etsitzen. Pisua galtzeaz bat ikusi zuen erretzeari uzteko garaia ere iritsi zitzaioela, "gainera, kalkuloak egin nituen eta, batz bestea, egunean 6 euro gastatzen nituen tabakoan. Hilean 180 euro eta urtean, pezetatan, 365.000 inguru!". Baina, beste gauza askotan gertatzen den bezala, "iritsiko da eguna, iritsiko da" esaten zion behin eta berriz Todorrek bere buruari, baina erabakia etengabe atzeratzen zuen.

### APOSTUA

2004ko abendua zen. Todor lagunekin zegoen eta urte amaieran hain ohikoa den gaia zuten mintzagai: urte berriari begira egin beharrekoak. Todorren bi lagunek apostua egin zuten ea bietatik nork lehenago utziko erretzeari. Todor ez zen apostuan sartu baina bere buruari agindu zion urte hasieran hartuko zuela erabakia. Egun batez, anbulategira joan zen tentsioa neurtzera eta erizainari esan zion erretzeari lagatzekotan zela, baina laguntza behar zuela. Erizainak aipatu zion Josean Agotek jende askori lagundu



diola zeregin horretan eta, nahi izanez gero, berarekin hitzordua emango ziola. Todorren ezusterako, ordu laurdenera jarri zion zita. "Ikaratu egin nitzen eta hasieran ezetz esan nion, beste zeregin batzuk nituela eta hurrengo astean edo deituko nuela hitzordua hartzeko. Osasun zentrotik ihesi atera eta hamar minutuan hiru zigarro erre nituen, antsietatez. Arnasa hartu eta nire buruari gogor egin nion: Todor, animo!". Agoterekin hasi zuen Todorrek bere erronka berria.

### HIRU ASTE

Josean Agotaren aholkuak entzun zituen Todorrek eta bien artean plan bat egin zuten. Lehenengo astean Todorrek ondokoa lortu behar zuen: esnatu eta ordu bat pasa arte zigarrorik ez erretzea, egunean asko jota 15 zigarro erretzea, egunero ordubeteko pasiarra ematea eta gutxienez litro eta erdi likido edatea. Lehenengo astea erraz gainditu zuen Todorrek. Bigarren astea okerragoa izan zen, "oso-oso txarra. 15 zigarrorik 10 zigarrora jaitzi zen kopurua eta ezinaren ezinaz, tranpatxoak ere egin nituen. Pasiarak ere ordu eta erdikoak izan behar ziren eta zigarro batetik besterako tartea ere handitu egin zidaten". Bigarren astearen ostean Agotaren kontsultara erabaki irimo batekin iritsi zen Todor, "Josean, arre edo iso. Bietako bat: edo erretzen hasten naiz berriz, edo bihartik aurrera ez dut beste zigarrorik erreko. Hori bai, laguntza behar dut". Nikotinazko partxeak erretzetatu zikion Agotek eta, agindu bezala, Todorrek erretzeari laga zion. Martxoaren 2<sup>a</sup> zen.

Pozik dago Todor, "egia esan, oraindik goiz da ez erretzeak ekarri dizkidan onurak zein diren esateko, baina harro nago nire buruaz lortu dudalako. Harro nago jendearentzat eredu naizelako. Lagun askori entzuten diet: Todorrek egin badu, neuk ere lortuko dut! Eta, benetan diot, ez da hain zaila. Erabakia hartzea da gehien kostatzen dena, hortik aurrera... Uste baino errazagoa da".



#### • "Erabakia zurea da, babesba gurea" kanpaina jarri duzue martxan. Zein helbururekin?

Batez ere jendeari ikusaraztea zer ari diren egiten. Nik ikusten dudanaren arabera, jende asko eta asko ez da ohartzen erretzeak ze kalte eragiten dion. Beti uste dugu okerra besteei gertatuko zaiela. Autoarekin bezala, istripuak beti besteei gertatzen zaizkie.

#### • Eta zer gertatu ahal zaio erretzaile bati?

Amasketa aparatua, esaterako, asko kaltetzen da eta, nola ez, keak zuzenean eragiten dio mingainari, eztarriari eta baita usaimenari eta dastamenari ere.

#### • Erretzen lagatzeko ze laguntza daude?

Badaude partxeak eta pilulak baina gizarte segurantzak ez ditu bere gain hartzen, norberak bere poltsiketarik ordaindu behar ditu. Eta kuriozkoa da, ze erretzaileek ikaragarritzko gastua suposatzen dute Osakidetzaarentzat: minbizia dela-eta, lan bajak...

#### • Ez al da kontraesana?

Bai, baina, era berean, jende asko ordaintzen duenean bakarrik mentalizatzen da. Argaltzeko dietekin gauza bera gertatzen da. Gugana jotzen du askok argaldu nahi duelako eta guk dieta bat jartzen diegu baina alferrik. Aldiz, mediku pribatu batengana jotzen dutenean, ordaindu egin behar dutenez, askoz ahalegin gehiago jartzen dute. Gastatzeak gudan eragin handiagoa du beste edozerk baino.

#### • Medikuek nola egiten du jarraipena?

Kontua ez da egun batetik bestera erretzea eta betiko uztea. Guretzat askoz eraginkorragoa da egun bat erre gabe uztea, gero beste bat eta horrela poliki-poliki erabat laga arte. Borroka egunerokoa izan behar da ze epe luzera oso erraza da etsitzea.

#### • Eta abstinentzia-sindromeari aurre egiteko?

Estrategia batzuk daude eta, garrantziatsuenak da ohiturak aldatzea. Esaterako, bazkalosteko kafearen orde pasiarra ematea. Ohiturak aldatzea da, egunero egiten ditugun gazatxo horiek beste modu batera egitea. Eta, azken batean, hori da zailena.

## [ PROTAGONISTA ]



### Mari Karmen **Elorza**

64 urteko elgoibartar hau 8 anai-arreben artean gazteena da. Ahizpa zaharrak mojekin ikasi zituen eskulanak eta txikiei irakatsi zien berak zekiena. Hori dela eta, 5 ahizpek jaso zuten eskulanekiko zaletasuna. Mari Karmenek kontatu digunez, zortzi urteko neskatila bat zela hasi zen kakorraz-lanak edo gantxilloa egiten. 56 urte luze daramatza tapeteak, koadroak, oheak estaltzekoak eta abar egiten eta azken 18 urteetan bere lanak erakusgai jarri izan ditu Trintate jaiteako Artisautza ferian. Mari Karmenek, halere, gaur egun ez ditu bere lanak saltzen.

## [ NOTIZIA ]

### Arnaldo Otegi espetxera bidali zuen Grande-Marlaska epaileak

**A**rnaldo Otegi Batasunako bozeramalea Espainiako Auzitegi Nazionalean deklaratzera deitu zuen asteazkenean Francisco Grande-Marlaska epaileak. Otegi bera ETAko kidea ez dela esan zuen arren, fiskaltzak "egitura terroristan gidari postua duen pertsona bat" dela argudiatuz, Soto del Real espetxera bidaltzea erabaki zuen. Atera nahi badu, 400.000 euroko bermea ordaindu beharko du.

#### Erabaki politikoa

Jone Goirizelaia abokatuak "eskandalu politikoa eta juridikotzat" jo zuen epailearen erabakia eta espetxeratzea mahai gainean bake proposamen bat



dagoen unean egitea salatu zuen. Epaileak inolako argudiorik ez daukala esan zuen Goirizelaia eta "erabaki politikoa" izan dela gaineratu du, Exekutiboarekin loturik dagoen fiskalak eskatutakoa bete duelako epaileak.

## [ ZENBAKIA ]

# 48

2004. urtean 48 bikote ezkondu ziren Elgoibarren. Aurten, dagoeneko 11 ezkontza ospatu dira gure herrian, eta bihar, maiatzak 28, beste ezkontza bat izango da. Guzti hauetatik 30 ezkontza zibilak izan ziren, eta gainontzeko 29ak elizaz eginiko ezkontzak. Ikusten denez, bi aukerak oso parekatuta daude.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Begira nolako txanpinoiak aurkitu dituen Ana Arrietak! Handienak 500 gramo pisatzen ditu, besteak 300 gramo eta txikienak 200 gramo. Hiru txanpinoirekin kilo osatu du. Joan zen ostiralean aurkitu zituen Gasteizera bidean. Oinez zihola, gauza zuri bat ikusi zuen belar artean, gerturatu eta sekulako sorpresa hartu zuen. Orain ez da txanpinoi garaia, baina aurten euri asko egin du eta horregatik izango da akaso. Hala ere, Ana ez da fidatzen, eta badaezpada ez dituela jango esan digu.



## Elgoibarko Atletismo Egokituaren 1. Proba zapatu honetan Mintxetan



**M**intxeta Atletismo Taldearen eta Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren eskutik Atletismo Egokituaren 1. Proba ospatuko da zapatuan, hilaren 28an, Mintxetan. Nazioarte mailako partaidetza izango du eta Mexiko, Portugal, Frantzia edo Espainiako 60 kirolarik parte hartuko dute, besteak beste. Atletismo egokituaren elite mailako kirolariak dira asko eta domina bat baino gehiago eskuratu dituzte Sydney eta Atenaseko paraolinpiadetan.

### Probak ezintasunaren arabekoak

Mintxetan ikusi ahal izango diren probak ezintasunen arabera mailakatuta daude: garun paralisia, paraplegia, itsuak, gorrak, gurpildun aukietan daudenak, e.a. Antolatzailek adierazitakoaren arabera proba bakoitzaren xehetasun eta arauak azaltzen saiatuko dira bozgorailuetatik. Bestalde, urritasunak dituzten kirolariek batera eskolarteko haurren probak tartekatuko dira.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Udako egonaldiak zaharren egoitzan

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak herritarrei jakinarazi nahi die, uda garaian zaharren egoitzan egonaldia egiteko eskariak ondorengo epeen barruan egin beharko direla: uztailan egonaldiak egiteko maiatzaren 31 baino lehen, eta abuzturako ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

### Musikaldiako zozketa

Maiatzaren 14an izan zen Musikaldia, eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak bi sari zozketatu ditu: Arrate Castañaresek irabazi du Musikaldiako lehenengo saria, eta Mari Isabel Aizpuruaentzat izan da bigarren saria. Zorionak!



### Haizearekin Tarazonara

Haizea Emakume Taldeak Tarazonara irteera antolatu du datorren ekainaren 19rako. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 35 euro. Irteera goizeko 8:15ean izango da, eta bidean haiketako egingo dute. Interesatuak Pitinxun eman dezakete izena.

### Milagrorra irteera

Jubilatuaren Biltokiak antolatuta, Milagrorra (Nafarroa) irteera izango da ekainaren 16an. Irteera goizeko 8:00etan egingo dute, King-Kongeko autobus geltokitik. Irteeraren prezioa 26 eurokoa izango da. Interesatuak Jubilatuen Biltokian eman dezakete izena.

## Udan auzolandegietara Gaz-T Aisialdi Taldearekin



Berako Udalarekin elkarlanean, auzolandegi programa jarri du martxan Elgoibarko Izarrako Gaz-T Aisialdi Taldeak datorren udarako. Bi gune landuko dira, labaderoak eta kislubeak. 10 egunetako hiru txanda egingo dira uztailan. Interesatuak 120 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako 3035 0036 13 036.0. 05581.0 kontu zenbakian ekainaren 6a baino lehen. Izen emate datuak Elgoibarko Izarrara eraman beharko dira ordain agiriarekin batera. Informazio gehiago 943 74 16 26 (Aiora) telefonoan, edo aiora@elgoibarkoizarra.com helbidera idatziz lortu daiteke.

# Inkesta

Maiatzaren 31n Kerik Gabeko Mundu Eguna ospatuko da

## Traba egiten al dizu inguruan jendea erretzen ego-teak?

**JESUS FERNANDEZ**

Aurre jubilatua

56 urte



“Ez, guztiz kontrakoa. Erretzailea naiz, eta ez zait ondo iruditzen toki publikoetan erretzea debekatzea. Ez erretzaileak errespetatu egin behar dira, baina gu ere.”

**LEANDRO TRINIDAD**

Moldeatzailea

56 urte



“Bai. Nik ez dut erretzen, eta keak batzutan traba egiten dit. Ondo iruditzen zait toki publikoetan erretzea debekatzea. Erretzaileek askotan ez gaituzte errespetatzen.”

**PURIFICACION DALMEIDA**

Enpresaria

39 urte



“Ez. Duela bi urte utzi nion erretzeari. Erretzailea nintze-nean ez nuen uste jendeari traba egiten nionik, baina norbaitek eskatuz gero, zigarroa itzaltzen nuen.”

**OLATZ BARANDIARAN**

Hezitzailea

22 urte



“Ez, nik neuk egiten diet traba besteei! Askotan pentsatu dut uztea, baina ez da erraza. Erretzea debekatzea gaizki dago, toki batzuk jarri beharko lituzkete guretzat.”

## [ BAI ala EZ? ]

Emango al zenuke zure bizitzaren berri interneteko blog edo egunkari horietako batean?

**BAI %3**

“Adierazpide-modu eta komunikazio-forma berriak sortzen ari direla Interneten bidez, eta hau da horietako bat. Bitxixa da, baina eduki haundiko kontuak landu daitezke blog bidez.”

**EZ %97**

“EZZZZ. Nahiago dut aurrean daukadan bati kontatzea, ezezagun batek irakurri dezakeen orri batean nire berri ematea baino.”

Datorren asterako... 12 urtetik beherako gero eta haur gehiago dago segapotoetara “engantxatuta”.  
Sakeleko telefonoa beti gainean eramaten al duzu?

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7744** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

# EZKONTZAK

# 2005

*Tradizioak markatzen duenaren arabera, maitasunaren helmuga ezkontza da. Hau da, bikote gehienek ezkontzaren bidez sinatzen dute euren arteko maitasuna eta elkarrekin hasiko duten proiektuaren lekuko bihurtzen dituzte gonbidatuak. Eskuartean duzuna gida antzekoa da ezkondu nahi duten bikoteei eskainia. Jarraian aurkituko dituzte ezkontza-eraztunei buruzko informazioa, musikaren garrantzia edo, esaterako, egun berezi horri begira gomendagarriak diren edergintzaren inguruko aholkuak. "Bai, nahi dut" esan aurretik lotu beharrekoak.*





# Aliantzak



## Loturaren urrezko sinboloa

*Ezkontzaren bueltan bada elementu bat klasikoan artean klasiko dena, sinbolorik esanguratsuena: ezkontza-eraztuna. Hala ere, kalsikotasunak alde batera lagata, gaur egun aukera zabala dago eraztun hauei dagokionean: urre horia, zuria, platinoa... Are gehiago, bakoitzak bere neurrira ere diseinatu ahal du, berak bakarrik izango duen eraztuna.*

Aramburu bitxidendan 50 modelo ezberdin daude. Edozein modutan, modelorik modernoena aukeratuta ere, "aliantza dela argi ikusi behar da", Onintza Aranbururen hitzetan. Hori bai, badago alderik neskarentzat ala mutilarentzat izan, "mutilek zenbat eta sinpleagoa, hobea. Eskuan zenbat eta gutxiago ikusi, gustukoago, bitxiak emakumeen kontua direla uste dute". Horregatik, mutilek nesken esku uzten dute aukeraketa eta, era berean, neskek mutilen gustua oso kontuan izaten dute modelu bat edo beste hautatzeko orduan. Hartara, "neskek harri bitxia daramaten ezkontza-eraztunak dituzte gogoko. Mutilek, aldiz, aliantza hutsa, estua eta diridirarik gabea".



## Urre zuria eta titanioa

Gaur egun oraindik ere urrea da gehien estimatzen den materiala, "batez beste 60 euro inguru balio du ezkontza-eraztun batek baina betiko geratzen den oroigarria da". Hori bai, askok urre zuria nahiago dute horia baino, "moda kontua da.

Jendeari esaten diogu urre zuriak mantenua eskatzen dulea horiak ez bezala, urteekin ajatu egiten da".

Zuria gustuko duenak baina mantenuaren kontua atsegin ez duenak, ordea, badu beste aukera bat: platinoa. Hori bai, urrea baino dezente garestiagoa da, "hamar bider gehiago balio du, 600 euro inguru". Eta, artista direnek beraiek diseinatu ahal dute eraztuna.

Onintzak kontatu digunez, "asko etortzen dira Letizia printsezari ikusitako eraztuna nahi dutela esanaz, edo antzeko diseinuren bat. Hori egin ahal da, baina, noski, garestiago ateratzen da diseinu eskusiboak dira-eta".

Santa Ana, 44 • Tel.-Fax: 943 74 44 51 • Apdo. 208 • e-mail: nava@euskalnet.net • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**NAYA** **NAYA** **NAYA** **NAYA** **NAYA** **NAYA**

*Ezkontza  
Gonbidapenak*

*nava@euskalnet.net*

**NAYA** **NAYA** **NAYA** **NAYA** **NAYA** **NAYA**

Santa Ana, 44 • Tel.-Fax: 943 74 44 51 • Apdo. 208 • e-mail: nava@euskalnet.net • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Loiola Hiribidea, 24*

20730 LOIOLA-AZPEITIA

Tel. 943 81 56 08  
Faxa: 943 15 03 65

# Ezkongaiak-2005 Berezia



Aurten, zure eztei-bidaiaren erreserba  
**EROSKI BIDAIK**-en egiterakoan preziorik onena  
lortzeaz gain, hau guztia irabaziko duzue...

**1.000 puntu TRAVEL CLUB  
eta opari zoragarri bat\*!!**

Eta Travel Club txartelik ez baduzue, oparitu egingo dizuegu



Haririk gabeko telefonoa  
Dect THOMSON Versatis 500




Musika-kate bat  
LC LX-M1 40D



75 piezako Mahai-Tresneria  
JAY Corona

**AZALEA**  
edergintza

Trenbide kalea, 3  
Tel. 943 74 03 10



**JOSE ANTONIO**  
ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 · Tel: 943 74 14 92

**ELENA**  
ileapaindegia  
depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1 · Tel: 943 74 11 89

**IDAMA**  
ILEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 - Tel: 943 74 40 26

zurre eguna da

• **DONNA** •

Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza, 13  
Tel. 943 74 43 88



**NAHIA**  
ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 14 ·  
Tel. 943 75 51 01 · MENDARO

**magu's**

Ileapaindegia-Edergintza

San Roke, 6 behea  
Tel. 943 74 34 91

**Amagoia**

ileapaindegia



Tel: 943 03 38 35  
Mendarozabal, 4 behea

**Maria Urizar**

Ileapaindegia  
Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 74 44 89



**Tximak**  
ILEAPAINDEGIA  
solariuma

Kalamua, 2 · Tel: 943 74 43 57



**Judith**  
Edergintza

San Frantzisko, 2  
(FARMAPRAIZ)  
Tel: 667 74 21 18



# ESTUDIO

## GEMMA Monreal López



*"Egun bereziatarako opari bereziak"*



**Estudioa**  
San Roke, 26 behea  
**Etxea**  
Arregitorre, 14 - 6 - C

**Telefonoa**  
943 74 30 69  
**Sakelekoa**  
665 700 912

# Aguirre



**%15eko**

**deskontua**  
**ezkontza eraztunetan**

*Ezkontza eraztun  
berezikiak:  
500 modelo  
baino gehiago*



*Emaztegaientzako  
esagarrak*

**Estazio, 10 Tel. 943 20 22 11**



# ARAMBURU

**BIFIXIDENDA**



San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 74 25 35





*Krabelin*  
**HOTELA - JATETXEA**

☎ 943 202 727 • FAXA 943 208 991  
Arrate auzoa, z/g • 20600 EIBAR(Gipuzkoa)



2 Suite jakuziarekin  
4 Gela hidromasajearekin  
Gela 1 helbarrituentzat egokituta

**WI-FI doan eraikuntza osoan**

250 pertsonentzako aretoa  
Era guztietako ospakizunak

**Gela bikoitza (denboraldi ertaina) 60 €**  
**Eguneko menua 17 €**  
**Karta 30-36 €**



## **DENBORALDIKO SUKALDEA**

Jon Odriozolak zuzendua  
Berezitasunak:  
**GARAICO EHIZA**







**JATETXEA**

Loiolako Inazio


Hiribidea, 47

20730 AZPEITIA

Tel: 943 15 16 16

Faxa: 943 15 16 18

[www.adegi.es/hotelloiola](http://www.adegi.es/hotelloiola)







# Judith

## EDERGINTZA

**Emakumea zein gizonezkoa izan,  
zatoz nigana zure irudia hobetzera!**



- Masajeak
- Gorputzeko tratamenduak
- Aurpegiko tratamenduak
- Depilazioak
- Makilajea
- Betileen tintea eta  
permanentea



San Frantzisko, 2 (FARMAPRAIZ) • Tel.: 667 74 21 18

# LASA JATETXEA



*Luxuzko eskaintza  
poltsiko guztien eskura*



*LASA Jatetxean,  
ezkontzaren unea  
sekula ahaz ez dezazun  
eta zure bizitzako  
oroigarri ahaztezina  
izan dadin  
lan egiten dugu.*

Ozaeta Jauregia • Tel: 943 76 10 55 • Web: [restaurantelasa.com](http://restaurantelasa.com) • BERGARA






**Joseba**  
**JATETXEA**  
 FLOREAGA Jauregia

Aizkibel, 10 · AZKOITIA  
 Tel. 943 85 34 12

*Euskal arkitekturako eraikin  
 nagusienetakoan,  
 ezkontzak berezia  
 izan behar duelako*



*XVI. mendeko  
 jauregi gotikoan  
 paregabeko paisaia  
 batean,  
 gaur egungo joerei  
 erreparatzen dien  
 kalitatezko  
 euskal sukaldaritza  
 klasikoaz gozatzeko  
 aukera ematen dute*



**250 lagunentzako jantokia,  
 ospakizun handietarako aproposa.  
 Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzako bata,  
 eta bestea erreserbatua, 20 lagunentzat.  
 Luncherako terraza aproposa.**



# ASTE BERDEA '05



01 02 03 04 05 06 07 08

## ekaina

### DEBA IBAIARI BURUZKO EKO-JOKOA

Urri buruzko jokoa (tribial eta antzara-jokoaren antzekoa) garatuko da Elgoibarren (ekainaren Sean, igandea, Foruen Plazan) eta Mendaron (ekainaren 6an, astelehena, Herriko Plazan).

### URARI BURUZKO ANTZERKIA

Urri buruz egingo den antzerkia. Elgoibarren: ekainaren Sean, igandea, Foruen Plazan, eguerdiko 13:00etan. Mendaron: ekainaren 6an, astelehena, Herriko Plazan, arratsaldeko 7etan.

### BALKOEN APAINKETA LEHIAKETA

Hoberen apaindatako eta poltzenak dituen balkoiak sarituko dira bertako 8 sari eta eskualdeko sari bat. Loreak doan banatuko dira, guztiak bukatu arte. ELGOIBAR: ekainaren Sean, Foruen Plazan, 12.00etan. MENDARO: ekainaren 6an, Herriko Plazan, 12.00etan.

### DEBA IBAIA EZAGUTU - uztailak 3

Irteera gidatua Deba ibaira. Ezagutu ezazu ibaiaren flora eta fauna (urkiak, haltzak, zozoak, txanxangorriak...), eta ikas ezazu gure ibaiaren ingurumen-egoera aintzat hartzen. Nahitaezkoa da izena ematea (azken eguna ekainaren 23a izango da).

### ESKOLA AGENDA 21 FOROA - maiatzak 31

Eskualdeko 14 ikastetxeretako ikasleek hondakinei buruzko azterketaren emaitzak aurkeztuko dituzte.

INFORMAZIOA: Tel.: 943 820 110 - e-mail: agenda21@debegesa.com.



## TXILLARRE Barazkiak

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

### Elikagai natural eta biologikoak:

- Ardoa, sagardoa, olioak...
- Kontserba begetalak
- Haragia, oilaskoak
- Ogia, irina, zerealak, pastak...
- Arrautzak
- Barazki eta frutak



### ORDUTEGIA

Asteleheneretik larunbatera 9etatik 13etara

### MERKATU PLAZAN



TXILLARRE BASERRIA • Sallobente Auzoa • Tel.: 943 74 20 85






# Edergintza

## Inoiz baino ederrago

*Ezkontza egunean eder azaldu nahi dute ezkongaiak, bai neskek eta baita mutilek ere. Hori dela eta, gaur egun gero eta maizago jotzen dute edertasun zentroetara. Guk Judith Zabalarengana jo dugu. Berak zenbait aholku eman dizkigu. Hona hemen ezkondu nahi duten bikoteei zer gomendatzen dien, pausoz pauso.*



### 3 hilabete lehenago

Gorputza zaintzen hastea komeni da, hau da, kiroltik egiten ez dutenei kirol piska bat aholkatuko nieke eta, nola ez, baita elikadura zaintzea ere. Horrez gain, bakoitzaren arabera tratamenduak daude: zelulitiaren kontrakoak, hidratazioa, reafirmanteak...

### Hilabete lehenago

Ezkontza eguna baino 30 egun lehenago peeling-a gomendatu du Judithek. Peeling-aren ostean, azala prest dago UVA izpiak hartzeko, beti ere ezkongaiak beltzaran azaldu nahi badu ezkontza egunean. Hala ere, ez da gomendatzen kolore gehiegi izatea ze gerta daiteke mutilaren eta neskaren artean kontraste gehiegi egotea. Aurpegiko tratamenduak ere hilabete lehenago egitea komeni da. Hasi, garbiketa batekin hastea gomendatzen da eta hurrengo asteetan, aste bakoitzeko tratamendu bana, beti ere azalaren beharrei egokituta.

### 15 egun lehenago

Ezkongaiak asko eskertzen dute masaje erlaxantea izan ere, ezkontza batek lan handia ematen du eta tentsio eta urduritasun handiak egoten dira. Horrez gain, neskari makilaje proba egingo zaio ezkontza egunean azken orduko ezustekorik ez dadin egon. Mutilei, beriz, bekainak depilatzen zaizkie forma polita izateko.

### Astebete lehenago

Neskei betileak kizkurtzen eta tindatzen zaizkie eta gorputz osoko depilazioa egiten zaiei. Badira mutilak ere depilazioa onartzen dutenak.

### Aurreko egunean

Aurpegiko tratamendu berezia egiten zaie helburu bikoitzarekin: azala edertu eta hurrengo eguneko makilajerako prestatu. Bekainak ere kopontzen dira, manikura eta pedikura egiten da eta, bukatzeko, masaje goxo bat.



## DEBAPE

INPRIMATEGIA

komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.: 943 74 40 58

• Faxa: 943 74 41 78 • debape@telefonica.net



ARGAZKIAK

San Bartolome, 29

Tel.: 943 74 08 48



## Imprenta Arrillaga

DISEINUA - FOTOKONPOSIZIOA - ETIKETAK, KARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK, TIPOGRAFIA, OFFSET, OROIGARRIAK, POLTSIKOKO ETA PARETAKO EGUTEGIAK, EZKONTZA GONBIDAPENAK, HILETETAKO OROIGARRIA.

Trenbide, 13 behea • [arrillagas1@euskalnet.net](mailto:arrillagas1@euskalnet.net)

Tel.: 943 74 01 87 • Faxa: 943 74 53 13 54 • Mugikorra: 677 42 55 60



muñumer inprimategia

TIPOGRAFIA eta OFFSETEAN

ERA GUZTIETAKO INPRIMAKIAK

Santa Klara, 28 behea

Tel.: 943 74 42 92 Faxa: 943 74 43 41

# Musika

## Dantzatuko al dugu?



*Ezkontza batek daukan esanahia alde batera lagata, ezin ukatu bai ezkongaiantzat eta baita gonbidatuentzat ere, ezkontza jaia dela, festa. Eta festa bat behar bezala antolatzeke ezinbestekoa da musika egotea. Gaur egun, gainera, bi aukera daude: ohiko orkestra edo DJ-a.*

Garai batean orkestrak ziren ezkontzetako aukera bakarra baina gaur egun gero eta gehiago dira DJ bat kontratatzen dutenak gustukoak dituzten abestiak jartzeko. Hori bai, kasu gehienetan, ezkongaiak aukeratu duten taldearekin bilera egiten dute ea zein musika mota gustatzen zaien jakin eta dantzan entzungo diren abestiak zehazteko. Gehien-gehienetan denetik aukeratzen da. Hau da, vals, bolero, tango eta antzekoekin hasi eta baita trikitiak, salsa edo merengea eta, nola ez, moda-modan dauden azken abestiak ere.

Ezkontzek berez dute izaera tradizionala eta ildo horretan egiten da gauza gehien aukeraketa ere: soinekoa, loreak, eraztunak eta baita musika ere, esaterako, oraindik ere bikote gehienek dantza tarteari paso emateko hautatzen duten abestia valsa izaten da. Dena dela, badira eurentzat abesti esanguratsua dena nahiago dutenak. Ezagutu ziren egunean musika hori entzun zutelako, beraien une hunkigarriren bat



gogorarazten dielako edo beste arrazoi bereziren bat dela-eta. Azken finean, bakoitzak bere neurrira eta izaeraren arabera musika aukeratzen du. Hortik aurrera, gonbidatuek askatasun osoa dute orkestrari edo DJ-ari entzun nahi duten abestia eskatzeko. Esan bezala, ezkontza festa da eta festan dena da libre. Ia dena.

### Top 10

- Paquito chocolatero (Los campesinos)
- I will survive (Hermes House Band)
- Buleria (Bisbal)
- Walking on sunshine (Katrina and the waves)
- Mienteme (Bisbal eta Elena Gadel)
- Furra furra (Oskori)
- Fandango eta arin-arinak
- Maricaipirinha (Carlinhos Brown)
- Salta (Tequila)
- Dragostea Din Tei (O-Zone)

**CORTE BLANCO**  
HOMBRE

*Ezkontza Trajeak*  
*Kolekzio Berria*

Senargaiak • Aitabitxiak • Gonbidatuak

**Lehenak Gipuzkoan**

TRIUNFO, 3 • DONOSTIA

ESKLUSIBAN GURE BEZEROENTZAT

*Senargaiak 2005*

[ GOMENDIOA ]



**Uzuri Larrañaga**

**UZURI**  
Optika

## Eguzkitako Betaurrekoak

**J**ende askok uste du haurrei ez diela kalterik egiten eguzkiak baina ez da horrela, alderantziz, haurren begiak ere babestu behar dira. Izan ere, kristalinoa ez dago erabat osatua eta UV izpiek kalte egiten die, beraz, haurrek ere eguzkitakoak eramatea gomendatzen da.

Adinaren eraginez, begiak berez galtzen ditu lehendik zituen babesak baina, hala ere, eguzkiaren eragina posible da ekiditea. Latitutearen eta altitutearen arabera ezberdintasuna dago izpiek eragiten duten kalteei dagokionean. Ekuadorretik gertu, esaterako, radiazioa askoz altuagoa da. Era berean, zenbat eta oskarbiagoa, are eta modu zuzenagoan eragiten dute izpiek baina egun lainotsuetan ere UV

izpien %90 sartu egiten da eta iparraldeko hemisferioan kontu handiz ibili behar dugu ekainean eta uztailean eta goizeko 10ak eta eguerdiko 14:00ak bitartean.

Gaur egun bost kategorია eta zenbakitan banatuta daude izpiei aurre egiteko filtroak:

0: Oso lente argiak, egun lainotsuetarako. Izpien %80-100 inguru sartzen da.

1: Argitasunaren %43-80 bitartean iristen da begietara.

3: lente ilunak: %8-18 soilik jasotzen du begiak.

4: oso ilunak: begi sentsibleentzat gomendagarrienak. Izpien %3-8 bitartean soilik iristen da begietara.

# [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 635 71 55 03

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometriska

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### HORTZ KLINIKAK

Nora Bastida

Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75

Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu,  
deitu 943 74 37 04ra**





## KENIA REINOSA KUBA [IPARAMERIKA]

### «Kuban diru gehiago balego herrialde perfektua litzateke»

AFRIKAKO HERRIALDE BATEN IZENA DARAMAN ARREN, KARIBEAR PETO-PETOA DA KENIA REINOSA. HOGEI URTEREkin ATERA ZEN KUBATIK ETA LAU URTE DARAMATZA GURE ARTEAN BIZITZEN. GUANTANAMOKOA DA (IRLAREN EKIALDEKO MUTURREAN), SANTIAGO DE CUBATIK GERTU ETA HABANATIK HURRUN DAGOEN HERRI BATEKOA. LUR ABERATS ETA EMANAKORRA EI DA ETA NEKAZARITZATIK BIZI DIRA GEHIENAK, AZUKREA, KAFAA EDO TABAKOA LANDATZETIK, ALEGIA. BERE BIZITZARI BURUZ ETA KUBATARREN IZAERARI BURUZ BERBA EGIN DIGU AMA GAZTE HONEK.



▲ **“Cuando sali de Cuba...” dio abestiak. Eta zu, nola atera zinen irlatik?**

20 urte nituela elgoibartar batekin ezkondu eta honantz etorri nintzen. 21 urterekin alabatxoa izan nuen eta orain senararengandik bananduta nago. Atzerritar batekin ezkonduz ez bada, oso zaila da Kubatik ateratzea.

▲ **Kuba moduko herrialde ederra lagatzea gogorra egin al zitzazun?**

Bai, noski, nire herrialdea izugarri gogoko dut, baina bizitzeko baldintza hobeak nahi nituen. Hemen, egindako lana oso ondo ordaintzen da. Kuban oso zaila da lana topatu eta bizi baldintza duinak izatea. Kuban diru gehiago balego, herrialde perfektua litzateke.

▲ **Zertan gara ezberdinak euskaldunak eta kubatarak?**

Kubatarrok egunetik egunera bizi gara. Euskaldunok gehiago pentsatzen duzue etorkizunean, ‘umeak etxea dudanean ekarriko ditut...’ etab. Kuban, beriz, haurrak datozenean datoz. 21 urterekin alaba izan nuenean, oraindik ume bat nintzela esaten zidan askok, baina nik ez dut horrela ikusten. Kuban normala da eta nire amak ere 17 urterekin eduki ninduen ni. Bestalde, euskaldunok lagunekin geratzeko ia denborarik gabe bizi zarete.

«Euskaldunok gehiago pentsatzen duzue etorkizunean»

▲ **Hortaz, bizitzeko Kuba ala Elgoibar?**

Kuban biziko balitz nire alabak ikasketak eta medikuntza dohainik izango litzuke eta nire familiakoan maitasuna ere izango luke, baina era berean, gabezia asko izango litzuke eguneroko bizimoduan. Hemen



aldiz, beragatik sakrifikatu naiteke, lan egin, eta bizitza hobea bat eskaini. Guztiok nahi dugu bizimodu hobea eta bilatzeko hurrunera joan behar bada, zer erremedio!

**👤 Kubako egoera txarra dela diozu. Aldatuko den itxaropenik bai?**

Ez daukat ideiarik ere, baina urteak igaro ahala hobetuko den esperantza daukat. Amak esan didanaren arabera azken aldian janari gehiago jasotzen dute.

**👤 Politikaz berba egiteko askatasunik ba al duzue Kuban?**

Ezetz uste dut. Politikaz justukoa hitz eginda hobea eta berba egitekotan onerako.

**👤 Zer ekarriko zenuke Kubatik Euskal Herrira?**

Hango eguraldia. Guantanamo ia urte guztian 30-40 graduko eguraldi beroa daukagu.

**👤 Zer deritoxozu Euskal Herriko giro eta parrandari buruz?**

Ez du zerikusirik Kubakoarekin. Hemengo parrandatik gutxien gustatzen zaidana latinoamerikarren dantza egiteko modua asko kritikatzeko dela da. Kuban emakumeok aldaka edo gerri buelta asko mugitzen dugu eta egundokoak entzun ditut hemen horregatik, batez ere emakumeen ahotik. Gizonezkoak probokatzeko egiten dugula esan izan digute askok, baina gure dantza egiteko modua besterik ez da. Harridura sorrarazten zidan jarrera horrek eta hemengo dantzatzeko modura moldatu behar izan nuen hasieran.

**👤 Kubatarrok beti alai zaudete.**

Ni behintzat beti alai agertzen saiatzen naiz. Arazoak arazo eta barrutik triste egon arren, ez ditut azaleratzen, niretzako gordetzen ditut. Ez zait nire arazoak kontatzea gustatzen, nitaz barre egingo duten beldur bainaiz. Bizitza ahalik eta era naturalenean hartu behar da, gehiegi kezkatuta ere ezin baita irtenbiderik topatu. Arazoa hor egon liteke, baina arazoan behin eta berriz pentsatzen egon beharrean, ahal dudan eina disfrutatzen saiatzen naiz. Dantza egiteak esaterako, asko lasaitzen nau.

**👤 Itzuli al zara Kubara?**

Bai, alaba jaio eta zortzi hilabete zituenean eraman nuen Kubara. Nire ama oraingo bere iloba bakarra dena ezagutzeko irrikatzen zegoen, beste hiru anaia gazteagoak baidituz.



**KUBA**

- **Hiriburua:** La Habana
- **Azalera:** 110.860m<sup>2</sup>
- **Biztanleria:** 11.300.000 (zuriak %66, beltzak %12, mestizoak %22)
- **Dentsitatea:** 101,9
- **Bizi itxaropena:** 77 urte
- **Klima:** Subtropikala
- **Alfabetatze maila:** %99,8



*Kenia Elgoibarko familiarekin eta albarekin.*

## Etorkizuneko bertsolariak taula gainean

Gipuzkoako Bertsozale Elkarateak antolatuta bertso jaialdia ospatu zen joan zen maiatzaren 20an, Herriko Antzokian. Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako 89 haurrek parte hartu zuten bertan eta antzokia ikusleez gainezka egon zen. Bertsozale elkarateak hainbat herritan antolatu ditu gisa honetako saioak eta bertsoen bitartez ikasleen ahozkotasan lantzea eta garatzea da helburu nagusienetako bat. Batek baino gehiagok erakutsi zuen bertsoarako trebetasuna.



## Eskuz taldearen erakusketa

Eskuz Taldeko ikasleek urtean zehar egin dituzten lanekin osatutako erakusketa antolatu dute. Gaur, hilak 27, inauguratuko da erakusketa eta ekainaren 8ra bitartean izango da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Batez ere, armairuak zaharberritzen egin duten lanaren fruitua ikusi ahal izango da. Ordutegia, astelehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara eta jaiagunetan: 12:00etatik 14:00etara.

## TRINITATE JAIAK Giro ona eta parte-hartze handia nagusi



Trinitateek ere esan digute agur datorren urtera arte. Trinitateetako IV. Azoka Bereziarekin hasi ziren jaiak eta elgoibartar baserritarren abere eta produkturik onenak ikusteko aukera izan genuen. Idi proba erakustaldiak ere ikusmin handia sortu zuen eta idi pareta Nafarroa plazako punta batetik bestera harrizarra mugitzen ikusteak aintzinako garaiak ekarri zizkiguten gogora. Bestalde, Bilbok Karlinhos Brown brasildarraren doinuak izan bazituen, tanborrada doinuak nagusitu ziren Elgoibarren zapatu gau eta domeka goizean. Haurren tanborradak, gainera, Mickey eta Minnie Mouse irudikatzen zituzten karroza ikusgarriarekin zeharkatu zituen herriko kaleak. Maalako Jai Batzordeak antolatu zuen bazkari herrikoian ere 40 lagun elkartu ziren.





## HERRI BAT MENDIAN GORA EGITASMOA

### “Elgoibar mendiari begira” mahaingurua ekainaren 2an, eguenean

**P**ako Iriondo, Patxi Lizarralde eta Felix Etxeberria mendizale eta euskalzale ezagunek “Elgoibar mendiari begira” mahainguruan parte hartuko dute datorren eguenean, ekainaren 2an. Mendizaletasunak Elgoibarren izan zituen lehen urratsak, Morkaikoren sorrera, Piriniotara lehen irteerak, euskara, abertzaletasuna eta mendia, Elgoibarko Izarraren mendi irteerak eta beste hainbat gai izango dituzte hizpide. Morkaikok eta Elgoibarko Izarrak elkarlanean antolatuta duten “Herri bat mendian gora” egitasmoari dagokion ekitaldia 19:30etan hasiko da Musika Eskolako auditorioan. Mahainguruaren ostean, Luis Mari Iriondoren aintzinako Finalista Eguneko proiektio bat ikusi ahal izango da.

#### Ibilaldia 2005 eta Finalista Eguna

Bestalde, domeka honetan Elgoibartik Durangora oinez joateko irteera antolatuta du Morkaikok, bertan ospatuko baita aurtengo Ibilaldia. Goizaldeko 6:00etan



izango da irteera Plaza Handitik. Itzulera trenez egin daiteke, baina norbere kontura izango da. Bestalde, ekainaren 5ean ospatuko den Finalista Egunerako egindako mendien zerrendak Morkaikoren egoitzara eraman beharko dira eta San Pedron egingo den bazkarian parte hartu nahi dutenek (haurrak eta nagusiak) ere izena eman beharko dute.



#### Kadete mailako futbol taldeak ohorezko mailara igotzea lortu du

C.D. Elgoibar kadete mailako futbol taldeak denboraldi aparta burutu du aurtun eta urte guztian bilatu duten saria eskuratu dute azkenean, mailaz igotzea, alegia. Datorren denboraldian Ohorezko mailan arituko dira. Elgoibarren kadete

mailako talde batek inoiz lortu duen arrakastarik handiena da honakoa. Kadeteak ez dira fin aritu diren bakarrak izan, ordea, nesken gazte taldeak Kopako finala jokatuko baitu domeka honetan, hilaren 29an, Betiona taldearen aurka.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Durango 2 - Haundi 0 (3. maila)  
Elgoibar 0 - Romo 3 (Jub.)  
Elgoibar 9 - Mutriku 0 (kad.)  
Elgoibar 0 - Añorga 3 (Inf. A)  
Elgoibar 6 - Hondarribia 1 (Aleb.)  
Elgoibar 1 - Salvatierra 0 (Inf. B)  
Oiartzun 1 - Elgoibar 5 (Neskak F-8)

### ARETO FUTBOLA

Sasikoa 13 - Kenci Elg 6 (Nazional B)

### PILOTA

#### Lagunak Txapelketa

Agirrebeña 18 - Ibarluzea 15 (Benj.)  
Zubizarreta 16 - Alberdi 18 (Benj.)  
Cid 15 - Ruiz 18 (Aleb.)

#### Debarroko Txapelketa

Aretxabaleta 22 - Lagunak A 15 (Nag.)  
Olalde 13 - Lagunak B 22 (Nag.)  
Eibar 11 - Lagunak 22 (Kad.)

### ESKUBALOAIA

Umobitza Sanlo 16 - Zarautz 36 (Kad. mut.)  
Pagoaga Sanlo 12 - Leizaran 14 (Kad. nesk.)  
Legazpia 13 - Cometel Sanlo 22 (Jub. nesk.)  
Usurbil 10 - Tecnomeca Sanlo 18 (Kad. mut.)  
Legazpia 23 - Pneumax Sanlo 18 (Jub. mut.)  
Ereintza 31 - Sanlo 24 (Sen. nesk.)  
Tecnifuelle 33 - Zarautz 18 (Sen. mut.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA

Mintxetan  
Domekia, 29  
17:00 Haundi - Zalla (3. maila)

### ESKU PILOTA

Ikastolan  
Barixakua, 27  
21:00 Lagunak - Aloña Mendi (Jub.)  
21:45 Lagunak - Euskal Jolas (Kad.)

## [ IDARRAGA SARIAK ]

### IDARRAGA KAFAK 8. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 04/05

Jokalaria	Puntuak
1. J. Igartua	50
2. Navarrete	48
3. J. Arrasate	48
4. David	39
5. Ibai Gonzalez	37
6. Etxabe	31
7. Loren	29
8. M. Elkoro	28
9. A. Arenas	28
10. Javi Gomez	20
11. I. Orvesagasti	16
12. Mikel Calvo	15
13. Iribar	12
14. Guinea	10
15. Urzelai	5

# Merkatua

## OHARRA

Merkatu txikirako  
mezuak ekartzeko  
azken eguna  
asteazken eguerdiko  
13:30a da.

## [ LANA ]

### ESKAERA

† Emakumea umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest.

☎ 699 28 40 64

† Soldadorea lanerako prest.

† Mutila eskaintzen da lan egiteko: gida baimena dut, urdaitegi-harakin ezagutza. ☎ 615 00 83 46

† Soldadorea lanerako prest.

☎ 696 79 41 07

† Zaintzailea nagusiak zaintzeko prest. 10 urteko esperientzia eta informea.

☎ 685 729 790

† Mutila nagusiak zaindu, txofer, edo igeltsaritza lanetarako prest.

☎ 670 25 78 04

† 19 urteko neska asteburuetan tabernan edo jatetxean lan egiteko prest.

☎ 943 53 11 15

† Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak...

☎ 695 708 028/943 531868

† Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak...

☎ 646 235 195

† Mendaroko emakumea jantzi konponketak egin edo etxeko lanetarako prest. ☎ 943 03 36 05

† Emakumea garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak...

☎ 699 609 190

† Emakumea ospitalean gaixoak zaintzeko prest, gauzez edo goizez. ☎ 943 17 28 96 (Mertxe)

† Mutila enkofratzaile edo 2. mailako igeltsero moduan lan egiteko prest. ☎ 943 17 28 96 (Jesus)

† Mutila garbiketa, peoi, igeltsaritza, obra edo pinturan lan egiteko prest. ☎ 638 716 987 (Anjel)

† Bi neska gazte lanerako prest. ☎ 605 74 03 13

† Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak... ☎ 686 578 228

### ESKAITZA

† Pertsona bat behar dut udan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.

☎ 687 114 707

† Euskal Bizikleta txirindulari probarako azafatak behar dira. Ekaineko hasieran, kotxea ezinbestekoa. Ordaindua.

☎ 607 71 38 37 (Antonio)

† Pertsona euskalduna behar da astean zehar barran lan egiteko.

☎ 670 65 49 21

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

† Etxea salgai Mendaran. 77m<sup>2</sup> Bizitzera sartzeko moduan, dena kanpora, eguzkitsua eta ganbararekin.

☎ 659 71 57 22

† Etxea salgai, oso egoera onean. 3 logela eta terraza. ☎ 609 541 622

† Etxea salgai Pedro Muguruzan. Sukaldea, komun, egongela, 2 logela, balkoia, terraza, trasteroa.

☎ 600 300 682

† Pisua salgai Artetxen (Inigez de Karkizano). Berritua, altzariekin, dena kanpora, ganbararekin.

☎ 627 94 12 61

† Etxea salgai Errosario kalean. Bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, 3 logela, 3 balkoi, egongela, komun, despentsa, berogailu zentrala.

☎ 943 74 02 68

† Etxea salgai Santa Ana kalean. Altzariekin, 3 logela, komun, sukaldea, egongela, bi trastero.

☎ 647 067 666

† Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m<sup>2</sup>. Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukalea, lehortegia eta garajea. ☎ 687 23 58 39

† Etxe berria salgai Soroluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa.

☎ 615 77 99 20

† Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komun. Igogailuarekin. ☎ 943 74 26 14

† Etxea salgai San Roken. Sukaldea, 3 logela, egongela, 2 komun, trasteroa, 2

balkoi eta ganbara. Garajea aukeran.

☎ 943 74 88 53

† Etxea salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, sukaldea eta komun. Dena berritua. ☎ 943 74 18 83 (Ignacio)

† Etxea salgai Basarten. 75m<sup>2</sup> Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, garajea. ☎ 652 70 99 15

### ALOKAIRUA

† Etxe adosatua alokatzen da Alcoceberen (Castellon) ekaina, uztaila eta iraila. Igerilekua, hondartzatik 200 metrora. Gune oso lasaia.

☎ 680 18 39 07

† Pisua alokatzen da Torrevejan. Igerilekuarekin eta hondartzatik 600 metrora. ☎ 628 58 45 35

† Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Eibarren.

☎ 690 701 118

† Apartamentua alokatzen da Mallorkan. ☎ 645 82 93 45 (Aitor)

† Pisual alokatzen dut Donostian udan. Ondarretatik 10 minutura. 2 logela.

☎ 943 377 292 (21:30-22:30)

† Emakume batek bere etxean beste emakume bat hartuko luke alokairuan. Gela komunarekin, eta sukaldea.

☎ 943 74 16 71

† Etxea dut Jakan igerileku eta kiral guneduna. Astebete trukatu nuke abuztuan mediterraneoan etxea duen norbaitekin. ☎ 6657460 62 (Maitel)

† Pisua konpartitzeko pertsona bat behar da. ☎ 610 45 85 52

† Benidorm-en apartamentua alokatzen da. ☎ 943 74 06 28 (gauzez)

† Etxea alokatzen da Zarautzen. Uda, asteburuak, zubiak... Hondartzatik gertu. ☎ 685 71 84 54

## [ GARAJEAK ]

† Trenbide kalean garaje itxia salgai. Goiko solairuan.

☎ 943 74 01 77

† Garajea salgai Ernuaranbiden.

☎ 943 74 35 78

† Garajea salgai Urasandin.

☎ 943 74 07 26 (21:00-22:00)

## [ SALEROSKETAK ]

† KTM 450 SX motorra salgai. 2003. urtekoa. Gutxi erabilia, transmisio eta errubera berriak, argiarentzat irteera, extrak. 4.900 euro. ☎ 678 587 867

† KTM 250 EXC motorra salgai. 2002. urtekoa. krosseko eskapea eta depositoa. 2 urtetan 200km. 4.000 euro.

☎ 678 587 867

† Bi piragua salgai, erremuekin. Biak 500 eurotan.

☎ 676 33 87 43 (Inaki)

† Silver Cross haur auklia salgai. Berritua. 200 euro. ☎ 943 74 01 94

† Peugeot 306 Style Break 1.9 TD familiara salgai. 1999. urtekoa.

☎ 645 007 465 (Inaki)

† Seat Leon Sport 110 cv. salgai. 4 urte, 99.500km. ☎ 645 007 465 (Inaki)

† Zaldiak salgai. ☎ 670 23 52 54

† Hyundai Coupe autoa salgai. SS-3755AX ☎ 943 74 24 26

† Bikintzako kotxe-silla salgai.

Inglesina markakoa. ☎ 636 12 95 43

† Andregai soinekoa eta konplementoak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. ☎ 943 08 00

81/615726430

## [ BESTERIK ]

† Arrilaga kalean poltsa galdu nuen ume jantziekin. ☎ 943 74 14 52

† Urte eta erdiko Setter ingeles emea oparitzen dut. ☎ 650 22 33 28 (18:00etatik aurrera)

† Eguzkitakoak galdu ditut Mendaran. Emakumezkoak, granateak, graduatuak. ☎ 657 722 836 (Leire)



**URKIDI** AHOLKULARITZA

KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL



ASEGURUAK

Kalamua, 12 · ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91



**INTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

## [ZORIONAK]




† Zorionak **Haritz** zure 1. urtebetetzean. Egun zoriontsu bat igaro dezazula! Ikastolako laguntxoak



† **Nagore** oso ondo pasa genuen zure 2. urtebetetzean. Zorionak ikastolako laguntxoan partez



† Egun polita igaro genuen zure 2. urtebetetzean. Zorionak zure ikastolako laguntxoan partez



† Zorionak **Hiart**, etxekoan partez!!!



† Zorionak **Sara** bihar maiatzak 28, sei urte beteko dituzulako. Gurasoen eta ahizparen partez



† Zorionak **Amaia** hilaren 25ean 9 urte egin zenituelako. Muxu bat losu, guraso eta familiakoan partez



† Zorionak aitxita **Jose Mari** bihar urteak egingo dituzulako, familiakoan eta Ane eta Mariaren partez.



† Zorionak **Jon Landa** bihar 4 urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki gurasoen partez.



† Zorionak **Gorka** ekainaren 24an 6 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta anaiaren partez.



† Zorionak **Ane** bihar 6 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



† Zorionak **Tamara** hilaren 24an 9 urte egingo dituzulako. Muxuak Aida, guraso eta familiakoan partez.



† Zorionak **Naroa** bihar 5 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Gabielen partez.



† Zorionak **Manoliil** Familiakoan, Julene, eta Olaiaren partez.



† Zorionak **amatxo** larubatean 36 urte bete zenituelako. Angel eta Judith-en partez.



† Zorionak **Oierl** gaur 5 urte, txapeldun! Patxo handi bat Unai eta etxekoan partez.



† Zorionak **Anton** igandean hiru urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Mikelen partez muxu bat.



† Zorionak **Haizea** hilaren 22an 6 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki anaia Markelen partez.



† Zorionak **Jokin Arriola** atzo 7 urte egin zenituelako. Gurasoen eta anaia Beñaten partez.



† Zorionak **Iera** maiatzaren 23an 6 urte bete zenituelako. Familiakoan eta bereziki Ikerren partez.



† Zorionak **Ion** hilaren 28an 8 urte egingo dituzulako. Malena eta gurasoen partez.



† Zorionak **Garazi** hilaren 21ean 2 urte egin zenituelako. Etxekoan partez.



† Zorionak **Pin eta Pon**. Izugarri maite zaituztegu, eta betirako hain lagunak izaten jarrai dezazuela espero dugu. Hilaren 24an eta 25ean oso ondo pasa! Aida eta losuren partez.



**JOSE** *pinturak*  
(Txema)

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobilak: 629 44 23 14

**Iriondo** TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15





## [ OKINDEGIA ]



29 igandea BOLINTXO



## [ FARMAZIAK ]

27	<b>EGUNEZ</b> Ibañez	<b>GAUEZ</b> Ibañez	<b>KANPOKO FARMAZIAK</b> <b>IBANEZ</b> Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
28	Bidasolo	Bidasolo	
29	Bidasolo	Bidasolo	
30	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	
31	Fernandez	Fernandez	<b>FERNANDEZ</b> Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
1	Yudego	Yudego	
2	Zabaleta	Zabaleta	
3	Etxeberria (Erosario Ana)	Etxeberria	<b>ZABALETA</b> Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84



## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**  
**Astegunak:** 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00  
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40  
**Pesa:** 902 10 12 10

**DONOSTIA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandeak eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA:** 902 10 12 10

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**  
**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

## [ 27 BARIXAKUA ]

**19:00 ESKUZ TALDEKO IKASLEEN LANEN ERAKUSKETA**  
 Kultur Etxeko erakusketa gelan  
 Ekainaren 8ra arte

**19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUA**  
 Herriko Antzokian

**21:30 PILOTA JAIALDIA**  
 Goñati Pilotalekuan (Mendaro)  
 Partidak: Iribarri I-Goikoetxea, Iribarri II-Zubillaga eta Esnaola-Antxostegi  
 Antolatzailea: Mendaroko Udala

**22:30 KONTZERTUA**  
 "Sotoko Hotsak"  
 Taldea: "Tzesne vs Paralux"  
 Izenburua: "La Carne" (ikus-entzunezkoa)  
 Oharra: Irudiek ikusleen sentsibilitatea mindu dezakete  
 Kultur Etxeko sotoan  
 Antolatzailea: Sinuose  
 Sarrera: 3 euro

# ASTE BERDEA '05

1 2 3 4 5 6 7 8 ekaina

"Ezagutu zure ibaila" programan baina emateko, bete ezazu honekin batera doakizun kupola, eta eraman ezazu udalera, edo deitu 943 820 110 telefonora edo e-posta idazki helbide honetara: agendaz1@debegesa.com. Harenanietan jarriko gara zurekin.

Izema \_\_\_\_\_  
 Abizenak \_\_\_\_\_  
 Helbidea \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_  
 Posta Kutxa \_\_\_\_\_ Herria \_\_\_\_\_

# PAGOERROTA

iturgintza



- Iturgintza
- Gaso
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)  
 Tel: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323

## [ 28 ZAPATUA ]

**10:00 GURASOEN EGUNA PILAR IKASTETXEAN**  
Egun osoan zehar

**18:30 ELGOIBARKO ATLETISMO EGOKITUAREN I. PROBA**  
Mintxetako kirol gunean  
Antolatzaileak: Mintxeta A.T. eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

## [ 29 DOMEKIA ]

**9:30 ERROMESALDIA ARANTZAZURA**  
Irteera: Sigmako Errotondatik  
Txartelak: Muruamendiaraz gozotegian  
Antolatzailea: San Bartolome Parrokia

**10:00 XVI. ELGOIBARKO LAGUN TALDEA SARIA TXIRRINDULARI PROBA**  
Kadete maila  
Irteera: Plaza Handia  
Helmuga: Santa Klara kalean  
Luzera: 48 kilometro

**12:30 ELGOIBARKO UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**  
Egitaraua: "Gloria al pueblo" (P. Artola), "El Murcielago" (J. Strauss), "Western Pictures" (Kees Vlak), "El Trust de los Tenorios" (J. Serrano) eta "El Cumbanchero" (R. Hernandez)  
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro Herriko Antzokian

## [ 2 EGUENA ]

**18:00 ATE IREKIEN EGUNA**  
IMHn

**19:00 HERRI ESKOLAKO JAIALDIA**  
Herriko Antzokian

## [ 3 BARIXAKUA ]

**19:15 KONTZERTUA**  
Aitor Nova saxofoi jolea eta Loreto Aramendi pianu jolea

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El secreto de Vera Drake» (Z.K.)  
27, barixakua: 22:15  
«Entre Copas»  
28, zapatua: 19:30-22:15  
29, domekia: 19:30-22:15  
30, astelehena: 22:15  
«American Splendor» (Z.K.)  
2, eguna: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

«Star Wars III»  
27, barixakua: 19:30-22:15  
28, zapatua: 17:00-19:45-22:30  
29, domekia: 17:00-19:45-22:30  
30, astelehena: 19:30-22:15  
31, martitena: 19:30-22:15  
1, eguztana: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

«Sahara»  
27, barixakua: 19:30-22:15  
28, zapatua: 17:00-19:45-22:30  
29, domekia: 17:00-19:45-22:30  
30, astelehena: 19:30-22:15  
31, martitena: 19:30-22:15  
1, eguztana: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «Entre copas»



Zuzendaria: Olivier Hirschbiegel.  
Antzezleak: Paul Giamatti, T. Haden Church.  
Banaketaren ostean traumatizatuta geratu den dibortziatua da Miles. Idazlea izatea gustatuko litzaioke eta ardoekiko duen mirespena obsesiotik gertuago dago, afiziotik baino. Gauzak horrela, Santa Ynez bailarako mahastiak ezagutzera gonbidatuko du ezkontzeare dagoen unibertsitate garaietako lagun zahar bat. Bikote ezin arraragoa osatzen dute biek, eta gustuko dituzten ardoetan ere azaleratzen dira ezberdintasunok.

### «American Splendor» (Z.K.)

Zuzendaria: Shari Springer eta Robert Pulcini.  
Antzezleak: Paul Giamatti, Hope Davis.  
Cleveland hiriko ospitaleko langilea da Harvey. Egunerokotasunetik ihes egiten laguntzen dion gauza bakarra lankideekin izaten dituen eztabaidak dira. Musikaz, amerikar kulturaren gainbeheraz, goxokien zapore beriez edo beste edozertaz berba egiten dute. Urte batzuk geroago, "American Splendor" komiki tira argitaratuko du, iparamerikar langile klasearen bizimoduaren erretratu ironikoa. 2003ko Sundanceko Zinemaldian filma onena.

# Atzera begira



**1978**. urteko erretratu hau **Jose Gabiolak** laga digu. Lerungo futbol zelai zaharrean aterata dago, eta bertan ageri den taldea C.D. Elgoibarko titularrek, ordezkoez, beteranoez eta entrenatzaileek osatzen dute. Herriko ikastetxeetako irakasleen kontra jokatu zuten. Esan digutenez, norgehiagoka gogorra izan zen. C.D. Elgoibarko taldeak irabazi zuen 1-0. Gogora ditzagun zeintzuk diren: Goian zutik, ezkerretik eskumara: **Ignacio Mugerza "El ruso"**, **Josexo Arakistain** (Real Madrilko jokalaria ohia eta nazioarteko atezain ospetsua), **Joseba Zulaika "Ondarru"**, **Alberto Gonzalez**, **Jose Gabiola** (Realeko jokalaria ohia), **Javier Gurrutxaga**, **Luis Maria Ruiz de Gauna "Tini"**, **Txomin Arzamendi**, **Ramon San Martin "Aldai I"** (†) eta **Juan Mari Osoro "Katxo"**.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Luis Mari Arakistain**, **Manolo Perez** (masajista), **Manolo Uncilla** (Sevillako jokalaria ohia eta talde honetako entrenatzailea), **Juan Luis Apellaniz "Txaltxa"**, **Guillermo Gorostiza "Quintela"**, **Felipe Araujo**, **Jesus Mari Ibarra**, **Juanjo San Martin "Aldai II"** (†) eta **Txema Aizpurua**.



## ESKERTZA

2005eko maiatzaren 21ean hil zen **Benito Bastida Zubiaurre** ren emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2005eko maiatzaren 21ean hil zen **Dolores Alba Zaralloren** seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







# ELGOIBAR BH INSTITUTUA

## 2005/06 IKASTURTEA

Arregilorre, 2  
Tel.: 943 74 80 19  
E-posta: bulegoa@elgoibarbh.net  
www.elgoibarbh.net



### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika  
Karrozeria, txapa eta pintura  
Merkataritza  
Erizaintza laguntza osagarriak

### GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa  
Administrarritza eta finantzak  
Ingurugiro osasuna

### Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 8ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuena, enpresa simulatuak, lan praktikak Europan, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak.

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.

# AZKEN ETXEBIZITZAK salgai



**Neinor**

NEINOR Azkoitia  
Julio Urquijo Etorbidea, 10  
20.720 AZKOITIA

**943 852 411 - 943 317 511**

- 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.



Zure logela aukeratzekoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.  
**Gure erakusketa bisita ezazu!**



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.



Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu.  
**%50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU**



Mustisac-ekin **INDEPENDENTZIA**, bi pertsonen ohe berean egin dezakete lo erosotasun eta independentzia osoz, ohe ezberdinetan egongo balira bezala.

**LAGUNAK**

**24** hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)